



EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN 2024-25 DEIALDIRAKO OINARRIAK.

Deialdi honek diru-laguntzak lehiaketa bidez ematea du helburu, udalerrian euskararen sustapenean laguntzeko xedez, hain zuzen ere, baldin eta honako eraren batean egiten badira:

- 1) Euskara ikasteko bekak (2024ko urriaren 1aren eta 2025eko irailaren 30era artean egindako ikastaroak).
- 2) Deialdi hau ondokoek arautuko dute: oinarri hauek, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, eta Donemiliagako Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen kudeaketa ondoko oinarrien arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza, bai eta zehaztutako helburuak betetzearaginkortasuna eta baliabide publikoen esleipen eta erabileran efizientzia ere.

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da 2024/2025 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta ostatukoak ez), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

BIGARRENA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira:

- a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2024-2025 ikasturtea hasi baino lehen; baldin eta, ikasturtean zehar, erroldan baja eragiten bada, diru-laguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.
- b) Izena ematean, 16 urtetik gora izatea.
- c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.
- d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Edonola ere, ikastaroetarako baino ez da emango diru-laguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
- e) Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izan behar da.
- f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan izana bermatu behar da edo matrikulatutako ikastaroa gainditu.

HIRUGARRENA. AGIRIAK ETA ESKAERAK



Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Udalak eskueran jarritako eskaera orri ofiziala.
- b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- c) Euskaltegiaren agiria, ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izanaren egiaztagiria...) eta matrikula ordaindu izana egiaztatzen dituenak.
- d) Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horretan mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banan-banan zehaztuko dira.
- e) Euskaltegiaren agiriak matrikula ordaindu izana egiaztatzen ez badu, bankuaren ziurtagiria, matrikula ordaindu dela egiaztatzen duena.
- f) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon deneko aldia egiaztatzen duen dokumentazioa.
- g) Lanaldi partzialeko enplegatua izanez gero eta dedikazioa ehuneko 40 baino gutxiago izanez gero, hori egiaztatzeko dokumentazioa. (bizitza laborala)
- h) Ikasketa ofizialak egiten ibiliz gero, ikasturtea bitartean horiek egiten egotearen egiaztagiria.
- i) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa edo laguntza eskatu izana egiaztatzen duen agiria edo zinpeko aitorpena

LAUGARRENA. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEALDIA ETA TOKIA

Eskabideak Donemiliagako Udalaren bulegoetan jaso daitezkeen inprimakietan egin behar dira; haiek eta eskatzen diren gainerako agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2025eko urriaren 31ra arteko epean.

BOSGARRENA. AURREKONTU KREDITUA ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak 2025eko aurrekontu orokorreko 335 48200 partidaren kredituari egotziko zaizkio, zeina 2.000,00 euroz hornituta baitago. Partida hori handitu egin daiteke. Diru-laguntzaren zenbatekoa ondokoen arabera zehaztuko da, eta betiere, kontuan izango da aurrekontu kredituaren muga:

- a) Eskatzailea langabezian badago ikastaro osoan, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600 euro eskatzaileko eta urteko). Langabetu partzialen kasuan, matrikula osoa bakarrik aplikatuko da baldin eta eskatzailea ikastaroak irauten duen aldiaren ehuneko 60 baino denbora gehiagoz badago langabezian. Horiek langabetutzat hartuko dira ikasturteko gehieneko diru-laguntza aplikatzeko garaian, eta 600 euroko gehieneko diru-laguntza jaso ahal izango dute. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko diru-laguntza aplikatuko da, 450 euroko gehieneko mugarekin.



- b) Eskatzailea ikasketa ofizialak egiten badago, 2024-2025 ikasturte osoan eta 26 urtetik beherakoa bada, laguntzaren zenbatekoa matrikula osoa izango da (gehienez 600 euro eskatzaileko eta urteko).
- c) Eskatzailea ez badago langabezian, laguntzaren zenbatekoa matrikularen ehuneko 75 izango da (gehienez 450 euro eskatzaileko eta urteko).
- d) Lanaldi partzialeko enplegatuak, lanaldia xedatutakoaren (hau da, astean 40 ordu) ehuneko 40 baino laburragoa badute ikastaroa iraun bitartean, langabetutzat hartuko dira ondorio guztietarako. Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 75eko diru-laguntza aplikatuko da, 450 euroko gehieneko mugarekin.

SEIGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUEKIN

Deialdi honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta diru-laguntzetan jasotakoa gastua baino gehiago ez bada. Euskara ikasteko bestelako laguntza edo diru-laguntzak eskatzeko aukera izanez gero (Merkataritza Ganbera, HABE...) eskatu egin behar dira. Onuradunak xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntza batzuk jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

ZAIZGARRENA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Emandako laguntza onartzea eta eskatutako xederako erabiltzea.
- Eskatutako ikastaroa edo ikastaroak egin izana egiaztatzea, bai eta laguntza jasotzeko ezarri diren betekizunak eta baldintzak bete izana ere.
- Laguntzan eragina duten aldakuntza edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraztea.
- Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak eman behar dituzte.
- Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan eta dagokion udal ordenantzan ezarritako betebeharrak.

ZORTZIGARRENA. ESKABIDEAK AZTERTU ETA EBAZTEA

Euskara zerbitzua kudeatzen duen teknikaria izango da organo izapidegilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen proposamenerako beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak, datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzearen, horien indarrez egin behar baita ebazpen proposamena.

Donemiliagako Udaleko Alkateak du diru-laguntzak emateko eskumena, frogagiriak aurkeztu ondoren; gero ordainduko da onartutako diru-laguntza osoa.



Eskaeren ebazpena gehienez ere hiru hilabeteren barruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka.

Ebazpena Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

BEDERATZIGARRENA. LAGUNTZA GALTZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Onuradunek laguntza osoa edo zati bat gal dezakete, aurrez espediente irekita, kasu hauetan:

- Datoren bat faltsutu bada eskaeran edota eskatutako agirietan.
- Laguntza erabili ez bada hura eman zen xede eta jardueretarako.
- Ezarritako betebeharren bat bete ez bada

Emandako laguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalak araututakoaren arabera izango da.

HAMARGARRENA. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa deialdi hau onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen espres edo presuntziozkoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera

HAMAIKAGARRENA. BESTE XEDAPEN BATZUK

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebatziko du. Aplikatu beharreko oinarritzko arauak hauek dira: Udal Dirulaguntza Plan Estrategikoa; dagokion udal ordenantza; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten baita.